



**IRAKASKUNTZA-GIDA** 2023/24

**Ikastegia** 231 - Psikologia Fakultatea

**Zikl.** Zehaztugabea

**Plana** GPSICO20 - Psikologiako Gradua

**Ikastaroa** Zehaztugabea

**IRAKASGAIA**

25075 - Garapen Psikologikoaren Sustapena

**ECTS kredituak:** 4,5

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Garapen Psikologikoaren Sustapena irakasgaia Oinarrizko Psikologia arloan kokatzen da, Oinarrizko Prozesu Psikologikoen eta Euren Garapen Sailean, Euskal Herriko Unibertsitatean. Irakasgaiaren lehenengo zatia, oinarrizko izaera duena, Oinarrizko Prozesu Psikologikoen eta Euren Garapen Sailaren ardura da, eta bigarren zatia, aldiz, izaera aplikatuagoa duena, Nortasun eta Psikologi-Ebaluaketa eta Tratamendurako Sailaren ardura da.

Garapen Psikologikoaren Sustapena irakasgaiak 4,5 kreditu ditu. ECTS kreditu bakoitzak ikaslearen aldetik 25 orduko lana eskatzen du, beraz guztira 112,5 lanordu suposatzen du. Konkretuki, 45 irakaskuntza ordu presentzial eta ikaslearen aldetik 67,5 lanordu ez-presentzial.

Irakasgai honek ikasleari garapen moral eta sozioemozionalari buruzko formakuntza zientifikoa eta oinarrizkoa eskaintzen dio. Halaber, ikasleak eremu honetako esku-hartze programei buruzko formakuntza eskuratuko du; programa horietan jolasak papera nabarmena beteko du, elementu erraztatzaile gisa.

Garapen Psikologikoaren Sustapena 3. eta 4. mailako hautazko irakasgaia da, 1. lauhilekoan ematen da eta Hezkuntzaren Psikologiaren Minorrean kokatzen da, ondoko irakasgaiekin batera:

Psikogerontologia.

Kirolaren Psikologia.

Familiaren Psikologia.

Sexualitatearen Psikologia.

Bizikidetzarako Hezkuntza.

Minor honen bidez ikasleak Hezkuntzaren Psikologiaren oinarri teoriko eta aplikatuak ezagutu eta garatuko ditu.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

**GAITASUNAK**

1. Jokabide moralaren eta sozio-emoziozkoaren faktore garrantzitsuenak ezagutzea.
2. Hezkuntzako esku hartzeen lerroak ezagutzea, moralaren arloan.
3. Jolasak garapen moralaren eta sozio-emoziozkoaren elementu bideratzaile gisa eta hezkuntzako esku hartzeen baliabide gisa duen garrantzia ezagutzea.
4. Garapen moralari eta sozio-emoziozkoari buruzko esku hartzeen eskaerak identifikatzeko gai izatea, hezkuntzako testuinguru formaletan eta ez-formaletan.
5. Garapen morala eta sozio-emoziozkoa ebaluatzeko tresna espezifikoak erabiltzeko gai izatea, hainbat testuingurutan.
6. Garapen moral eta sozio-emoziozkoa sustatzeko esku hartzeen estrategiak diseinatzeko, aplikatzeko eta ebaluatzeko gai izatea, hainbat testuingurutan.
7. Lanbide anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea.
8. Ahozko nahiz idatzizko txosten teknikoak egiteko gai izatea.
9. Psikologoak hainbat testuingurutan duen funtzio eta ardura etikoak ezagutzea.
10. Garapena sustatzeari buruzko dokumentazio-iturriak erabiltzeko gai izatea, eta informazioa eskuratzeko behar diren estrategiak menderatzen direla erakustea.

**ESPERO DIREN IKASKUNTZA-EMAITZAK**

Ikasleek ondoko ikaskuntza-emaizak lor ditzaten espero da. Ikaskuntza-emaizak horiek ezagutzen, prozeduren eta jarreraren eremuen kokatzen dira.

Ezagutza-emaizak



-Jokabide moralaren eta sozio-emoziozkoaren faktore garrantzitsuenak ezagutzea: kognizio, emozio eta identitate moralak. Judizio eta balio moralek, emozio moralek (enpatia, erru-sentimenduak, harrotasun morala eta abar) eta identitate moralak jokatzen duten papera ezagutzea. (1. gaitasuna).

-Hezkuntzako esku hartzeen lerroak ezagutzea, moralaren arloan: Kohlbergen ikuspegia, Balioen Argitzapenaren ikuspegia eta Izaeraren ikuspegia. (2. gaitasuna).

-Jolasak garapen moralaren eta sozio-emoziozkoaren elementu bideratzaile gisa eta hezkuntzako esku hartzeen baliabide gisa duen garrantzia ezagutzea: jolasaren ezaugarriak eta jolas mota ezberdinen sailkapena. (3. gaitasuna).

-Garapen moralari eta sozio-emoziozkoari buruzko esku hartzeen eskaerak identifikatzeko gai izatea, hezkuntzako testuinguru formaletan eta ez-formaletan. (4. gaitasuna).

-Psikologoak hainbat testuingurutan duen funtzio eta ardura etikoak ezagutzea. (9. gaitasuna).

#### Prozedura-emaitzak

-Garapen morala eta sozio-emoziozkoa ebaluatzeko tresna espezifikoak erabiltzeko gai izatea, hainbat hezkuntzako testuinguru formaletan eta ez-formaletan. (5. gaitasuna).

-Garapen moral eta sozio-emoziozkoa sustatzeko esku hartzeen estrategiak diseinatzeko, aplikatzeko eta ebaluatzeko gai izatea, hainbat hezkuntzako testuingurutan. (6. gaitasuna).

-Ahozko nahiz idatzizko txosten teknikoak egiteko gai izatea. (8. gaitasuna).

-Garapena sustatzeari buruzko dokumentazio-iturriak erabiltzeko gai izatea (gida honetan bibliografia atalean aurkitu daitezkenak, esate baterako), eta informazioa eskuratzeko behar diren estrategiak menderatzen direla erakustea. (10. gaitasuna).

#### Jarrera-emaitzak

-Lanbide anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea, adibidez hezkuntzako testuinguruko beste profesionalekin batera (irakasleekin, pedagogoeekin, psikopedagogoeekin, eta abarrekin). (7. gaitasuna).

## EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

LEHENENGO ATALA (Oinarrizko Prozesu Psikologikoen eta Euren Garapen Saila):

1. Jokabide moralean eragiten duten oinarrizko faktoreak.

1.1. Kognizio morala: judizio, printzipio eta balio moralak.

1.2. Emozio moralak.

1.3. Identitate morala.

1.4. Jokabide morala eta ez-morala.

2. Hezkuntza ikuspegi nagusiak arlo moralean.

BIGARREN ATALA (Nortasun eta Psikologi- Ebaluaketa eta Tratamendurako Saila):

3. Hezkuntzako testuinguruetan esku hartze sozioemozionalen eskarien identifikazioa eta ebaluazioa.

4. Garapen sozioemozionala sustatzeko programak: jolas programen diseinua eta ebaluazioa.

4.1. Jolasa: ezaugarriak eta sailkapena.

4.2. Sormena: sormen prozesua eta pentsamendu dibergentea sustatzeko teknikak.



4.3. Marrazkia: haur-gaztaro aldira aplikaturiko teknika proiektiboak.

**METODOLOGIA**

**KLASE TEORIKOAK**

- a) Irakasle arduradunek gai teorikoen eskola magistralen azalpena emango dute ikus-entzunezko baliabideen laguntzaz. Aldez aurretik komenigarria da ikasleek programan gomendatutako testuak irakurri izana.
- b) Gai teorikoen bukatzea: gai bakoitza amaitzean, 15 minutuz, klasean ikasleek eztabaidatuko, hausnartuko, zalantzak azalduko dituzte, eta abar.

**GELAKO PRAKTIKAK, TAILERRAK ETA MINTEGIAK**

Praktiken funtzionamendua talde txikiko lanean (3-4 pertsona) oinarrituko da; ondoren egindako lana talde handian amankomunean jarriko da. Tailer batzuetan haurrei eta gazteei zuzendutako esku hartze programaren diseinu kreatiboa egingo da. Saio bakoitza jarduera hauek entregatu ondoren emango da amaitutzat. Irakasleek jarduera horiek zuzendu eta itzuliko dizkiete ikasleei (7, 8 eta 9 gaitasunak).

Segidan gelako praktketan, tailerretan eta mintegietan zehar burutuko diren jarduerak azaltzen dira, baita irakasgaiaren gaitasunekiko lerrokatzea (alineazioa) ere:

1. Praktika aurreko irakurketa; irakurketa hauek irakasleak proposatuko ditu, baina zenbait kasutan ikaslea izango da dokumentazio iturriak bilatzearen arduraduna (1, 2, 3 eta 10 gaitasunak).
2. Hausnarketa pertsonala eta eztabaida talde handian. Eztabaida hauek hezkuntza moralean faktore gako batzuei buruzkoak izango dira, adibidez: altruismoaren existentziaren inguruan edo enpatiak dituen arriskuen inguruan (eta nola agin aurre arrisku horiei hezkuntzako testuinguruan). (1, 4 eta 9 gaitasunak).
3. Garapen morala sustatzeko bideratutako teknikak praktikan jartzea (adibidez: Balore orriak, Elkarrizketa argitzaileak, Dilema moralei buruzko eztabaidak, eta abar). (2, 4 eta 6 gaitasunak).
4. Hezkuntzako testuingurueta kasueen analisi eta eztabaida (4 eta 9 gaitasunak).
5. Role-playing ariketa. Hori, hezkuntzako testuingurueta psikologoaren rol-a eta beste partaide batzuen (irakasle, ikasle, eta abar) eskaera eta beharrak ulertzera bideratuta egongo da (4 eta 9 gaitasunak).
6. Ebaluaketa tresnen selekzio, pasazio eta zuzenketa (5 gaitasuna).
7. Unitate didaktiko baten diseinua (6 gaitasuna).
8. Garapen sozioemozionalean jolasak, sormenak eta marrazkiak duten garrantziari buruzko analisi eta eztabaida (3 gaitasuna).
9. Jolasaren, sormenaren eta marrazkiaren analisi estrukturala. (6 gaitasuna).

**IRAKASKUNTZA MOTAK**

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
<b>Ikasgelako eskola-orduak</b>	24	7	5				9		
<b>Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a</b>	36	10,5	7,5				13,5		

**Legenda:** M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.  
 GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak  
 TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

**EBALUAZIO-SISTEMAK**

- Azken ebaluazioaren sistema

**KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK**



- Garatu beharreko proba idatzia % 60
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 40

## **OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

### **ETENGABEKO EBALUAZIOA**

Gelako praktikan, tailerretan eta mintegietan zehar ikasleek, talde txikietan (3-4 lagun), gai ezberdinekin lotutako jarduerak burutuko dituzte eta irakasleek jarduera horiek jaso eta zuzenduko dituzte. Beraz, ebaluazioak izaera formagarria izango du. Lan honek guztiak izaera presentziala eta ez presentziala izango du. Ondoren, irakasleek jarduera horiek ikasleei itzuliko dizkiete. Praktiken nota maximoa 4 izango da. Atal praktikoa gainditzen ez dituzten ikasleek Azken Ebaluazioari dagokion azterketa praktikoa egin beharko dute.

Praktiak ebaluatu ahal izateko, ikasleek gelako praktiken, tailerren eta mintegien %80ra joan beharko dute.

Irakasgaiaren lehen zatia amaitzerakoan, ikasleek azterketa bat burutzeko aukera izango dute irakasgaieko lehen zatiko eduki teorikoak ebaluatzeko. Azterketa honek nota osoaren %30 balioko duelarik.

Bestalde, azterketen data ofizialetan irakasgaieko eduki teorikoak ebaluatzeko azterketa bat burutuko da. Aurrez lehen zatiko edukiak ebaluatuak izan dituzten ikasleen kasuan, soilik irakasgaieko bigarren zatira aurkeztuko dira; kasu honetan, azterketak amaierako notaren %30 balioko duelarik. Lehen zatiko eduki teorikoen azterketa burutu ez duten ikasleek, %60 balioko duen azterketa osoa burutuko dute, irakasgai osoaren eduki teorikoak barne hartuko dituelarik.

Irakasgaia gainditu ahal izateko, bai atal praktikoa, bai atal teorikoa gainditu beharko dira.

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita. (Graduko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia, II. Kapitulua, 8. artikulua. 2019ko ekainaren 28).

### **AZKEN EBALUAZIOA**

Azterketen data ofizialetan, irakasgaiaren eduki teorikoak eta praktikoak ebaluatzeko amaierako bi azterketa burutuko dira. Irakasgaia gainditzeko bi azterketak gainditu beharko direlarik:

- Azterketa teorikoa (%60): Irakasgaiko bi zatietako eduki teorikoak barne hartzen dituen azterketak nota osoaren %60 balioko du. Azterketa teoriko hau bat dator ebaluazio jarraituan burutuko direnekin.

- Azterketa praktikoa (%40): Bestetik, ikasleek bigarren azterketa bat burutu beharko dute tailerretan, mintegietan eta gelako praktikan zehar landutako gaitasunak ebaluatuak izateko (baita ordu ez-presentzialetan burutu den lanaren gaitasunak ere), zeinak nota osoaren %40 balioko duen.

Salbuespen gisa, amaierako ebaluazioa hautatu duten ikasleek aukera izango dute ere, irakasgaiaren lehen zatia amaitzerakoan %30 balioko duen azterketa burutzeko, zeinak irakasgaiko lehen zatiko eduki teorikoak barne hartuko dituen. Lehen zatiari dagokion azterketa teorikoa aurrez burutu duten ikasleek, data ofizialetan soilik bigarren zatiari dagokion azterketa burutu beharko dute; nota osoaren %30 balioko duelarik.

Irakasgaia gainditu ahal izateko, bai atal teorikoa, bai atal praktikoa gainditu behar dira.

**DEIALDIARI UKO EGITEA** (Graduko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia, II. Kapitulua, 12. artikulua. 2019ko ekainaren 28a)

Etengabeko ebaluazioaren kasuan, bai eta azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

### **IKASGAIA BIRTUALKI EBALUATZEKO PLANA**

Covid-19ak eragindako pandemiaren salbuespenezko egoera bati berriro aurre egin behar izanez gero, irakaskuntza gidan eta web orrialde ofizialean agertzen diren gidaren irizpideak alda daitezke. Irakasle taldeak hurrengo irizpidea erabiliko luke: "Garapen Psikologikoen Sustapena irakasgaiaren ebaluazio planak aurrez aurreko ebaluazioaren isla izaten saiatuko da, eGela irakaskuntza plataforman birtualean eskuragarri dauden jardueren bidez"



## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ohiko deialdian aipatu dena ezohiko deialdian aplikagarria da.

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Alde batetik, eskola magistraletan erabilitako ikus-entzunezko aurkezpenak; horiek Egelan eskuragarri egongo dira. Halaber, Egelan eta kopistegian baliagarriak izango diren beste materialak ere eskuragarri izango dituzte ikasleek. Bestalde, oinarrizko Bibliografian agertzen diren dokumentuak, irakasgaiaren alderdi teoriko eta praktikoak jorratzeko balio handikoak izan daitezke.

## BIBLIOGRAFÍA

### Oinarrizko bibliografia

- Blasi, A. (1980). Bridging moral cognition and moral action: A critical review of the literature. *Psychological Bulletin*, 88(1), 1-45.
- Borba, M. (2004). *Inteligencia moral: las 7 virtudes que los niños deben aprender para hacer lo correcto*. Bartzelona: Paidós Ibérica.
- Damasio, A. (1994/2001). *El error de Descartes*. Bartzelona: Biblioteca de Bolsillo.
- Díaz-Aguado eta Medrano, C. (1994). *Educación y razonamiento moral. Una aproximación constructivista para trabajar los contenidos transversales*. Bilbo: Mensajero.
- Etxebarria, I. (1999). *Desarrollo moral*. F. López, I. Etxebarria, M. J. Fuentes eta M. J. Ortiz (Koor.), *Desarrollo afectivo y social* (181-209 orr.). Madril: Pirámide.
- Etxebarria, I. (1999). *Desarrollo del altruismo y la agresión*. F. López, I. Etxebarria, M. J. Fuentes eta M. J. Ortiz (Koor.), *Desarrollo afectivo y social* (211-230 orr.). Madril: Pirámide.
- Etxebarria, I. (2006). *Los sentimientos de culpa: ¿Qué hacer con ellos?* Málaga: Arguval.
- Etxebarria, I. (2008). *La empatía y su contribución a los valores y la conducta cívico-moral*. A. Acosta (Zuz.), *Educación emocional y convivencia en el aula* (85-113 orr.). Madril: Secretaría General Técnica del Ministerio de Educación, Política Social y Deporte.
- Etxebarria, I. (2008). *Emociones sociales*. P. Palmero eta F. Martínez Sánchez (Arg.), *Motivación y emoción* (275-314 orr.). Madril: McGraw-Hill.
- Etxebarria, I. (2020). *Las emociones y el mundo moral. Más allá de la empatía*. Madril: Síntesis.
- Etxebarria, I., Conejero, S. eta Pascual, A. (2011). *Harrotasuna, aurrera egiten laguntzen digun adiskidea (bere berezitasunekin)*. K. Korta eta J. M. Larrazabal (Arg.), *Gogoz, hitzez eta egitez. Pello Huiziri eskeinitako lanak* (149-170 orr.). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Garaigordobil, M. (1996). *Evaluación de una intervención psicoeducativa en sus efectos sobre la conducta prosocial y la creatividad*. Madril: Ministerio de Educación y Cultura.
- Garaigordobil, M. (2004). *Intervención psicológica en la conducta agresiva y antisocial con niños*. *Psicothema*, 16(3), 429-435.
- Garaigordobil, M. (2005). *Diseño y evaluación de un programa de intervención socioemocional para promover la conducta prosocial y prevenir la violencia*. Madril: Ministerio de Educación y Ciencia.
- Garaigordobil, M. (2009). *Jolastea, kooperatzea eta sortzea: esku-hartze psikopedagogikoko eredu baten hiru ardatz estruktural*. *Jakingarriak*, 67, 20-37.
- Garaigordobil, M. eta Fagoaga J. M. (2006). *Juego cooperativo para prevenir la violencia en los centros educativos: Evaluación de programas de intervención para educación infantil, primaria y secundaria*. Madril: Ministerio de Educación y Ciencia.
- Haidt, J. eta Kesebir, S. (2010). *Morality*. S. T. Fiske, D. T. Gishbert eta G. Lindzey (Arg.), *Handbook of social psychology*. 2. bolumena (797-932 orr.). Hoboken, NJ: John Wiley & Sons.
- Hoffman, M. L. (2002). *Desarrollo moral y empatía: implicaciones para la atención y la justicia*. Bartzelona: Idea Books.
- Kohlberg, L. (1987/1975). *El enfoque cognitivo-evolutivo de la educación de la moral*. J. A. Jordán eta F. F. Santolaria (Arg.), *La educación moral, hoy. Cuestiones y perspectivas* (85-114 orr.). Bartzelona: P.P.U.
- Kohlberg, L., Power, F. C. eta Higgins, A. (Eds.). (1997). *La educación moral*. Bartzelona: Gedisa.
- Lickona (1991). *Educating for character: How our schools can teach respect and responsibility*. New York: Bantam Books.
- López, F., Apodaca, P., Eceiza, A., Etxebarria, I., Fuentes, M. J. eta Ortiz, M. J. (1994). *Para comprender la conducta altruista. Teoría, investigación e intervención educativa*. Lizarra: Editorial Verbo Divino.
- Martínez, M. eta Puig, J. M. (Arg.). (1991). *La educación moral. Perspectivas de futuro y técnicas de trabajo*. Bartzelona: GRAO.
- Medrano, C. (2002). *Piagetengandik Kohlbergenganaino*. *Hik hasi*, 7, 18-43.
- Pascual, M. A. (1995). *Clarificación de valores y desarrollo humano. Estrategias para la escuela*. Madril: Narcea.
- Payà, M. (1991). *Discusión de dilemas*. M. Martínez eta J. M. Puig (Arg.), *La educación moral. Perspectivas de futuro y técnicas de trabajo* (45-57 orr.). Bartzelona: Grao.
- Pérez-Delgado, E. eta García-Ros, R. (1991). *La psicología del desarrollo moral*. Mexico: Siglo Veintiuno.
- Vilar, J. (1991). *Clarificación de valores*. M. Martínez eta J. M. Puig (Arg.), *La educación moral. Perspectivas de futuro y técnicas de trabajo* (33-43 orr.). Bartzelona: Grao.
- Schwartz, S. (1996). *Value priorities and behavior: Aplying a Theory of integrated value systems*. C. Seligman, J. M. Olson



eta M. P. Zanna, The psychology of values (1-24 orr.). Mahwah, NJ: Lawrence Erlbaum.  
Wright, D. (1974). Psicología de la conducta moral. Bartzelona: Planeta.  
Zlobina, A. (2003). La teoría de los valores de Schwartz. D. Páez, I. Fernández, S. Ubillos eta E. Zubieta. Psicología social, cultura y educación (73-87 orr.). Madril: Prentice Hall.

### Gehiago sakontzeko bibliografia

Bennett, W. J. (2001). El libro de las virtudes para jóvenes. Bartzelona: Ediciones B.  
Bosello, A. P. (2000). Escuela y valores. Madril: CCS.  
Casals, E. eta Defis, O. (2006). Educación infantil y valores. Bilbo: Desclée de Brouwer.  
Coles, R. (1998). La inteligencia moral del niño y del adolescente. Bartzelona: Kairós.  
De la Caba, M. J. (2005). Intervención educativa para la prevención y el desarrollo socioafectivo en la escuela. F. López, I. Etxebarria, M. J. Fuentes eta M. J. Ortiz (2005), Desarrollo afectivo y social (361-382 orr.). Madril: Pirámide.  
González, R. eta Díez, E. (2002). Valores en familia. Orientación, tutoría y escuela de padres en Educación Infantil, Primaria y ESO. Madril: CCS.  
Goñi Grandmontagne, A. (Arg.). (1996). Psicología de la educación sociopersonal. Madril: Editorial Fundamentos.  
Gozálvez, V. (2000). Inteligencia moral. Bilbo: Desclée de Brouwer.  
Haydon, G. (2003). Enseñar valores. Madril: Morata.  
Howe, L. W. eta Howe, M. M. (1977). Cómo personalizar la educación. Perspectivas de la clarificación de valores. Madril: Santillana.  
López, F., Etxebarria, I., Fuentes, M. J. eta Ortiz, M. J. (2005). Desarrollo afectivo y social. Madril: Pirámide.  
López, F., Carpintero, E., Del Campo, A., Lázaro, S. eta Soriano, S. (2006). El bienestar personal y social y la prevención del malestar y la violencia. Madril: Pirámide.  
Medrano, C. (Arg.). (1994). Desarrollo de los valores y educación moral. Donostia: UPV/EHU.  
Molnar, A. (Arg.). (1997). The construction of children's character. Chicago IL: The National Society for the Study of Education.  
Nucci, L. P. (2003). La dimensión moral en la educación. Bilbo: Desclée de Brouwer.  
Puig, J. M. (2003). Prácticas morales: una aproximación a la educación moral. Bartzelona: Paidós Ibérica.  
Raines, S. C. eta Isbell, R. (2005). Cómo contar cuentos a los niños, relatos y actividades para estimular la creatividad e inculcar valores éticos. Bartzelona: Oniro.

### Aldizkariak

Adolescence  
Child Development  
Developmental Psychology  
European Journal of Developmental Psychology  
Human Development  
Infancia y Aprendizaje  
Infant Behavior & Development  
Journal of Applied Developmental Psychology  
Journal of Moral Education  
Revista de Psicodidáctica/Journal of Psychodidactics

### Interneteko helbide interesgarriak

<http://heroicimagination.org/>  
<http://www.prisonexp.org/espanol/>  
<http://www.rtve.es/alacarta/videos/heroes-invisibles/>  
<http://www.sc.ehu.es/ptwgalam/presentacion.htm>  
<http://www.sc.ehu.es/ptwgalam/meriales%20docentes%20curso%20verano%202008/3.%20%20Programas%20JUEGO%20Garaigordobil.pdf>  
<https://www.search-institute.org/>  
[https://www.ted.com/talks/abigail\\_marshall\\_why\\_some\\_people\\_are\\_more\\_altruistic\\_than\\_others?language=es](https://www.ted.com/talks/abigail_marshall_why_some_people_are_more_altruistic_than_others?language=es)  
[https://www.ted.com/talks/frans\\_de\\_waal\\_do\\_animals\\_have\\_morals?language=es](https://www.ted.com/talks/frans_de_waal_do_animals_have_morals?language=es)

### OHARRAK

#### IKASGAIA BIRTUALKI EBALUATZEKO PLANA

Covid-19ak eragindako pandemiaren salbuespenezko egoera bati berriro aurre egin behar izanez gero, irakaskuntza gidan eta web orrialde ofizialean agertzen diren gidaren irizpideak alda daitezke. Irakasle taldeak hurrengo irizpidea erabiliko luke: "Garapen Psikologikoaren Sustapena ikasgaiaren ebaluazio planak aurrez aurreko ebaluazioaren isla izaten saiatuko da, eGela irakaskuntza plataforman birtualean eskuragarri dauden jardueren bidez".